

VII. SAN ANTON BIRA Getariako itsas zeharkaldia.


SARRERA

Getariak kostarekin duen harremana ez da atzo goizekoa. Horren adibide da San Anton mendian dagoen Katxapo talaia sistema, Erdi Arotik aurrera baleak ikuskatzeko erabilitakoa. Gure arbasoen jarduera ekonomiko hura irudikatu eta handik osorik ikuskatu ahalko den igeriketa zeharkaldi antolatuko du aurten ere Getaitri Triatloi Klubak.

VII. San Anton Birak izen bereko penintsula inguratuko du. 2019an eginiko lehen edizioari jarraipena emanez, Gipuzkoako itsas zeharkaldien artean finkatu den froga da. Aurten lehen aldiz ibilbide laburrago bat ere izango dugu, bertan 11 eta 14 urte bitarteko gazteek, eta igeriketan hasi berriak diren edo ibilbide luzea luzeegia egiten zaienek parte hartu ahalko dute.

Oraindik ere sarri herriko arrantzaleek egiten duten gisan, sartaldetik sortalderako bidea egingo du zeharkaldiak. Gaztetapen izango du abiapuntua, Malkorben amaitzeko. Herriko bi hondartza nagusiak batuko ditu hala, eta hori izango du pizgarririk nabarmenena. Ez, ordea, bakarra. Bidean, getariarren hiztegi intimoeneko bi hitz kutunen esanahia bere egingo du parte-hartzaileak: kresala, eta harraldea. Gure nortasuna zertu duten bi ezaugarri horiek bide osoan zehar izango dute presentzia, zeharkaldiari Getariaren esentzia osoa emanaz. Halaber, lasterketak oldarretik barera egingo du, ur handitan ibili ostean lehorreratzen diren arrantzaleak bezala, Malkorbe barean amaitzeko.





PROBAREN DATUAK

Eguna:

2026/07/26, igandea.

Ordutegia eta ibilbidea:

-IIBILBIDE LUZEKO probari goizeko 10:00tan emango zaio hasiera Gaztetape hondartzatik, eta 2.600 m. egin ondoren, Malkorbeko hondartzan amaituko da.

-IBILBIDE LABURREKO probari goizeko 9:30tan emango zaio hasiera moia zaharretik, eta 600 m. egin ondoren, Malkorbeko hondartzan amaituko da.

Partaideen erantzukizuna izango da adierazitako orduan irteera-puntu egotea, epaileek zeharkaldiari hasiera ematen dioten unean.

Antolatzaileak:

GETAITRI Triatloi Kluba.

Erakunde laguntzailea:

Getariako Udala

Izen-emateak:

Internetez bakarrik, [kronoak.com](https://www.kronoak.com) webgunean.

Izen-emateko epea 2026ko ekainaren 8an zabalduko da, 10:00etan, eta 2026ko uztailaren 22an itxiko da 23:59an, edota plaza guztiak betetzen direnean (250 partehatzaile distantzia luzeko ibilbiderako, 100 distantzia laburreko ibilbiderako).

Izen-emate epea amaitzean edo partaide kopurua betetzen denean ez da egongo itxaron zerrendarik.

Prezioak:

-IBILBIDE LUZEA: Bi tarifa desberdin egongo dira izen-emate dataren arabera:

- 35€ ekainaren 8 eta uztailaren 17 bitartean egiten diren izen emateentzat, bi datak barne.

- 40€ uztailaren 18a baino beranduago egiten diren izen emateentzat, izen emateak bukatu arte.

-IBILBIDE LABURRA: Bi tarifa desberdin egongo dira adinaren arabera:

-15€ 11 eta 14 urte artekoentzat.

-22€ 15 urtetik gorakoentzat.

Dortsalak jasotzea:

Dortsalak probaren egunean jaso ahal izango dira, 8:00etatik 9:15era, helmuga-eremuan, Gurutze Gorri aurreko Kontsignan.

SAN ANTON BIRA ZEHARKALDIAREN IBILBIDEA

Irteera Gaztetape hondartzan izango da, eta San Anton mendiaren ertzetik joango dira igerilariak. Ibilbide guztia buia bidez seinaleztatuta egongo da. Igerilariak guztiak euren eskuinetara utzi beharko dituzte. Izarri punta gainditu ondoren, Masoparri aldera bideratuko dira eta handik moiako dikeak inguratzen, azkenik Malkorbe hondartza erdian kokaturiko helmugara arte.

DISTANTZIA: 2.600m



IRTEERA

Irteera 10:00tan izango da gaztetape hondartzatik eta ziurrenik irteera bakarra izango dugula, denok batera.

HELMUGA

Helmuga Malkorbe hondartza erdian egongo da eta bertatik Gurutze Gorri aldera bideratuko dira partaideak.

Ikusleek aukera bikaina izango dute froga jarraitzeko. Lehendabiziko zatia hondartza, nahiz Viveros San Anton aurrean kokaturiko dikeko pasealekutik, Ketarriraino. San Anton mendiko zeharkaldia bertara igota ikusi ahalko da ondoen (Katxapo edo itsasargiaren azpiko behatokitik). Behin Masoparri punta gaindituta, San Anton mendiko bidetik eta dike ezberdinetako goiko espaloietatik igerilariak helmugaraino ikusi ahalko dira. Probaren amaiera primeran ikustatuko da Malkorbe hondartza ingurutik, Artzapetik eta Katrapona plazatik.

DIZTANTZIA LABURREKO SAN ANTON BIRA ZEHARKALDIAREN IBILBIDEA

Irteera moila zaharrean izango da, eta portutik aterako dira igerilariak. Portutik ateratzean eskubirantz hartuko dute eta kirol portuko espigoia inguratuz Malkorbe hondartza erdian kokaturiko helmugara joango dira

DISTANTZIA: 600m



IRTEERA

Irteera 9:30tan izango da moila zaharretik. 11 eta 14 urte artekoak aterako dira aurrena, eta 15 urtetik gorakoak 5-10 minutu beranduago aterako dira (denbora tarte egunean erabakiko dugu igerilari kopuruaren arabera).

HELMUGA

Helmuga Malkorbe hondartza erdian egongo da eta bertatik Gurutze Gorri aldera bideratuko dira partaideak.

Ikusleek aukera bikaina izango dute froga jarraitzeko. Irteera moila gainetik ikusi dezakete eta ondoren kirol portuko espigoitik igerilarien ibilbidea jarraitu dezakete helmugaraino.

KONTSIGNA (ARROPAZAINDEGIA)

Probaren helmuga inguruan kokaturik egongo da. Gurutze Gorriaren eraikinaren parean.

- Bertan banatuko dira dortsalak.
- Bertan gordeko dira parte-hartzaileen motxilak.
- Probaren helmuga izateaz gain, haren gune estrategikoa ere izango da: bere inguruan kokatuko da hornidura-gunea eta baita medikuntza-zerbitzua ere (Gurutze Gorria).



PARTAIDETZA

- Ibilbide luzea:15 urtetik aurrera
- Ibilbide laburra: 11 eta 14 urte bitartekoak, eta 15 urtetik gorakoak ere bai (hasi berrientzat bideratuta).

Adina lehiaketa burutzen den urtean abenduaren 31ean beteko balitu bezala ulertuko da.

SARIAK ETA ZOZKETAK

Garaikurra ibilbide handiko sailkapeneko lehenengo hiruentzat, emakumezko zein gizonezko mailetan.

Garaikurra ibilbide handiko sailkapeneko lehen getariarentzat, emakumezko zein gizonezko mailetan.

Ibilbide laburrean ez da saririk egongo, gure nahia lehiaketa alde batera utziz igeriketako topaketa bat izatea bai da,

Sari-banaketa 11:15 inguru izango da Gurutze-Gorriaren ondoan (ibilbide luzeko azken parte hartzailea iritsi ondoren egingo dugu, jarri dugun ordua gutxi gora beherakoa da).

PROBA BERTAN BEHERA UZTEA EDO B PLANA

Proba bertan behera uztea. Zero arrisku.

Antolatzaileak eskubidea izango du ibilbidea aldatzeko, irteera-ordua atzeratu edo aurreratzeko, eta probaren eguna aldatzeko edo bertan behera uzteko, igerilarien segurtasuna bermatze aldera.

Ibilbide alternatiboa: itsasoaren egoerak proba itsas-zabalean egitea eragozten badu, ibilbide alternatiboa egingo da Malkorbe hondartzaren badian kokatuko diren buien bidez. San Anton mendiak naturalki babesturiko zonaldea da berau. Ibilbide originala edo alternatiboa egingo denaren erabakia egunena bertan hartuko da, goizean bertan itsasoaren egoera aztertu ondoren.

B ibilbidearen xehetasunak: Irteera moia zaharretik emango da eta igerilariak zuzen joan beharko dute Alzako harrirantz, bertan egongo den buia eskubian lagata buelta eman behar diote eta Malkorbeko badia inguratuz bigarren eta hirugarren buia eskubian laga beharko dute. 3. buia hau eskubian lagako dute eta 90°ko biraketa bat eginez hondartzaren paraleloan joango dira. 4. buiara iristean, hau ezkerrean laga eta hondartzara bideratuko dira, bertan lehorreratu egin beharko dute eta metro batzuk oinez egin (eremu hau hesituta egongo da partearzaileei lehentasuna emateko). Oinezko zatia egin ostean berriro uretaratuko dira azken zatia iristeko. Zuzuen egingo dute igerian azken buiara iristeko, eta hau ezkerrean lagata 180° biratuko dute helmugarako norabidea hartzeko.

B ibilbidearen diztanzia: 2.600m

B ibilbidearen plano:



Ibilbidea laburra: Kasu honetan ez dugu planteatzen B ibilbiderik. Dagoeneko ibilbide originala Getariako portua eta Malkorbeko badian izango da eta itsaso baldintza txarrak egongo balira ere bertan proba egiteko moduan izango gara. Muturreko itsaso baldintzak egongo balira ez genuke 11-14 urte artekoen frogarik egingo.

SEGURTASUNA

DEBEKUAK



Probak irauten duen bitartean, portuaren sarrera eta irteera itxita egongo da. Horretarako, probak irauten duen bitartean nabigazioa debekatuta dagoela adierazten duten kartelak jarriko dira kirol-portuan. Debekua bete egiten dela eta igerilarien segurtasuna ziurtatzeko, antolakuntzaren ontzi bat egongo da portuaren irteeran.

PROBAREN JARRAIPENA

Aipatutako ontzi horretaz gain, igerilarien segurtasuna bermatzeko, antolakuntzaren bost ontzik eta uretako bi motorrek jarraituko dute probaren ibilbide osoa.

Horrez gain, piraguak eta padel-surfak egongo dira ibilbidean, igerilarien ondoan, bide osoan zehar.

Probaren jarraipenerako bi arduradun nagusi egongo dira, lehorreko arduradun bat eta itsasoko arduradun bat. Biak Getaitri klubeko kideak izango dira.

ASEGURUAK

Probak erantzukizun zibileko aseguru bat kontratatuko du, partaide guztien segurtasuna bermatuko duena.

ZERBITZUAK

ZERBITZU MEDIKOA

Zerbitzu medikoa Gurutze Gorriko eraikinean egongo da, hau da, helmugan. Gurutze Gorria izango da zerbitzu horren arduraduna.

Itsasoan ere Gurutze Gorriko kideak egongo dira, uretako motor eta motordun ontziekin.

DUTXAK

Parte-hartzaileek dutxa-zerbitzua izango dute Getariako hondartzetako dutxetan.

HELMUGAKO ANOA

Parte hartzaile guztientzat helmugan anoa izango da. Sari banaketa amaitzen denean parrillada egingo dugu.

ZIGORRAK eta AZKEN AIPAMENA:

Antolakuntzak edozein zigor jarri ahal izango du frogaturiko edozein irregulartasunen aurrean. Ez da inor deskalifikatuko ordu eta 30min baino gehiago behar izateagatik itsas zeharkaldia bukatzeko. Hala ere, antolakuntzaren aldetik, segurtasuna bermatu nahian, aipatu dugun denbora betetzeko kapaz ikusten ez denari, parte ez hartzea aholkatzen diogu. **AZPIMARRATZEARREN, “D” PUNTUA KONTUAN IZATEA AHOLKATZEN DUGU.**

Hurrengo materialak debekatuta egongo dira:

- Tirak, “tape” edo tankerakoak.
- Erlojuak.
- Eskumuturrekoa, lepoko edo tankerakoak.
- FINA araudia betetzen ez duten bainujantziak (trajeak).

Erreklamazio guztiak bakarka aztertuko ditugu.

- A. Neoprenoarekin igeri egitea debekaturik egongo da uraren tenperatura 20 gradutik gorakoa bada. Hautazkoa izango da 18-20 gradu bitartean badago eta derrigorrezkoa izango da 18 gradu azpitik badago.
- B. Sorbaldan eta omoplatoan dortsalaren zenbakia markatzea ezinbestekoa izango da.
- **D. Antolakuntzak ohartarazten du proba honek bere gogortasuna duela eta ur irekietako itsas zeharkaldiek dauzkaten arrisku guztiak dituela, hori dela eta, prestakuntza egokia izatea eskatzen da. Baita osasun egoera zuzena izatea ere. Beraz, duintasunez bukatzeko gai ez direnei izena ez emateko aholkatzen da.**
- E. Antolakuntza exentua geratzen da zeharkaldiak partehartzaileei eragin diezaioketen kalte eta erantzunkizunetatik, beraiek izanik izena ematerakoan bere buruaren arduradun.
- F. Araudi honetan aurreikusten ez dena GIF eta RFEN-aren Ur Irekietako lehiaketetako araudian azaltzen denarekin eta FINA-ko ur irekietako araudi ofizialarekin beteko da.
- G. Sailkapeneko datuetan (izena eta abizena) zein komunikazioko edozein arlotan (argazkia) bere pribatutasuna mantendu nahi duen orok, jar dadila harremanetan antolakuntzarekin.